


PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

DIABECLOCK

Idea: Odolean dauzkagun osagai guztiak eta mikronutrienteak (proteinak, karbohidratoak (hauetatik glukosa gehien bat) eta gantzak) kalkulatzeko erlojua (gehien bat diabetikoentzat bideratua). Adabakiaren azpian mikro puntuak eta biosentsoreak egongo dira, glukosa eta gainerako bioelementuak minik egin gabe neurtzeko. Adabaki hori, 7 egun ostean ordeztu beharko da.

Biosentsore horiek nanopartikulak izango dituzte azala zeharkatu ahal izateko.



Biorrezeptorea entzima bat da odoleko osagaiak aztertzen dituena, hau da, aztergaia detektatzen du. Transduktoreak biorrezeptoreak bidaltzen dio seinale biologikoa seinale elektriko bihurtzen du eta azkenik, nanopartikulek seinale hori jaso egiten dute. Seinale orain ulerkorra bihurtu da eta informazio guztia erlojura garraiatu egin da bezeroak ikusi ahal izateko.

Adabakia besoan jartzea erabaki dugu han eramatea erosoagoa delako. Petxatuak haragi kolorekoak izango dira, baina arraza aniztasunaren ondorioz kolore desberdinak jarriko ditugu gutxiago nabaritzeko.

